

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

EUSKAL DANTZA HERRIKOIA LEHEN HEZKUNTZAN

Egilea: Agirre Lizarralde, Julen

Zuzendaria: Arriolabengoa Igarza, Miren Josu

Leioan, 2023ko ekainaren 6an

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. MARKO TEORIKOA.....	4
2.1. Dantza, lengoia unibertsala.....	4
2.2. Euskal dantza tradizioa.....	6
2.3. Dantza hezkuntza orokorrean.....	9
2.3.1. Dantzaren didaktika.....	12
3. METODOLOGIA.....	14
4. LANAREN GARAPENA.....	14
4.1. Errealitatearen azterketa.....	15
4.1.1. Diseinua.....	15
4.1.2. Emaitzak eta diagnostikoa.....	16
4.2. Esku hartzea.....	17
4.2.1. Proposamen didaktikoaren diseinua.....	17
4.2.2. Proposamenaren garapena eta emaitzak.....	18
5. ONDORIOAK.....	20
6. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA.....	22
7. BIBLIOGRAFIA.....	22

ERANSKINAK

1. eranskina: Emilio Xabier Dueñasi elkarrizketa. Transkripzioa
2. eranskina: BDBn federatutako taldeei pasatako inkesta
3. eranskina: Inkestaren emaitzak
4. eranskina: Musika irakasleentzat elkarrizketa fitxak. Galderak
5. eranskina: Musika irakasleentzat elkarrizketa fitxak. Erantzunak
6. eranskina: Ikasleen egoera dantzan. Fitxa
7. eranskina: Ikasleen egoera dantzan. Emaitzak
8. eranskina: Zazpi jauzi partitura
9. eranskina: Esku hartzearen diseinua
10. eranskina: Maite Irizarri elkarrizketa. Transkripzioa

EUSKAL DANTZA HERRIKOIA LEHEN HEZKUNTZAN**Julen Agirre Lizarralde**

UPV/EHU

Lan hau euskal dantza Lehen Hezkuntzan modu natural batean integratzeko beharretik sortu da, ikasleen garapen osoa eta gorputz lengoia aberats bat eskaini asmoz. Hurrek herri-kulturaren oinarria bereganatzea ere bultzatu nahi da. Gauzak horrela, euskal dantzetan eman den bilakaera eta ikasgelan hauek lantzearen beharrak azertu dira. Horretarako, Bilbo eta bertako ikastetxe baten errealitatea azertu da. Oinarri horrekin, lehenengo eta bosgarren mailarako proposamen didaktiko bat gauzatu da, dantzari eta musikari rolak erabiliz dantzarako zaletasuna garatzeko. Ekimen honek, eskola komunitatearen bizitza aberastu du eta etorkizunari begira, jarraikortasuna ematearen garrantzia agerian geratu da.

Dantza tradizioa, gorputz-lengoia, funtzio soziala, Musika Hezkuntza, Lehen Hezkuntza

Este proyecto nace de la necesidad de integrar las danzas vascas de manera natural en la Educación Primaria, para proporcionar el desarrollo integral del alumnado y un extenso lenguaje corporal. Pretende a su vez, hacer que el alumnado interiorice las bases de la cultura popular. De esta manera, se ha examinado la evolución de las danzas vascas y la necesidad de trabajarlas en el aula. Para ello, se ha analizado Bilbao y la realidad de una de sus escuelas. Partiendo de esta base, se ha diseñado una propuesta didáctica para el alumnado de primer y quinto curso, con el fin de desarrollar su afición hacia el baile, utilizando los roles de bailarín y músico. Esta iniciativa, ha enriquecido la vida de la comunidad escolar y ha revelado la importancia de darle una continuidad de cara al futuro.

Danza popular, lenguaje corporal, función social, Educación Musical, Educación Primaria

This project arises from the need to integrate Basque dances in a natural way in Primary Education, in order to provide the total development of the pupils and rich body language. It also aims to encourage pupils to internalise the basics of popular culture. In this way, the evolution of Basque dances and the need to work on them in the classroom have been examined. To this end, Bilbao and the reality of one of its schools have been analysed. On this basis, a didactic proposal has been designed for first and fifth grade pupils, with the aim of developing their interest in dance, by using the roles of dancer and musician. This initiative has enriched the school community's life and has revealed the importance of giving it continuity for the future.

Popular dance, body language, social function, Music Education, Primary Education

1. SARRERA

Euskal dantza herrikoia Euskal Herriko historia eta tradizio aberatsetan errotutako altxor kulturala da. Adierazpen artistiko honek mendeetan zehar iraun du, herriaren nortasuna eta espiritua mendez mende zein belaunaldiz belaunaldi transmitituz. Erritu erlijiosoetatik hasi eta jaietako ospakizunetaraino, euskal dantza komunikabide bat izan da, lengoaia bat, komunitateak elkartzen dituen.

Euskal dantza egiteak, aukera ematen du kultura-unibertso batean murgiltzeko; kolorez, energiaren eta kultura-loturez betea dagoen unibertsoan. Dantza herrikoia hauen bitartez, bertako folkloreak aberastasunean murgil daiteke, alderdi bakoitzaren garrantzia ulertuz eta euskal komunitatea osatzen duen ezinbesteko papertzat hartuz.

Alabaina, gizartearen aldaketa geroz eta azkarrago bat bizitzen ari gara: gizarte homogeneizazioa, indibidualismoa, jardura sozialen gainbehera... Aldaketa horiek ere zuzenean eragin die, zalantza barik, urte luzez gure herrietan plazaratu izan diren dantzei. Zer esanik ez, gainera, Bilbo moduko hiri handi bezain anitz batean. Horregatik, lan honetan hiriaren beherakada hori hurbiletik ezagutu nahi izan da.

Bestalde, hezkuntza munduari erreparatuz, badirudi gorputz lengoaia honek ez duela aparteko garrantzirik. Alabaina, ikuspegi pedagogikotik begiratzen badugu, dantza tresna boteretsua da; ikasleen garapen integrala, sormena, konfiantza, diziplina eta gizarte-trebetasunak sustatzen dituena. Mugimenduaren, musikaren eta interpretazioaren bidez, dantzak hezkuntza-prozesua aberasten du, ikasleei ikasteko esperientzia paregabea eskainiz, liburuetatik eta ikasgeletatik haratago doana. Gradu Amaierako Lan honetan, beraz, dantzak hezkuntzan duen funtsezko papera, onurak eta eskola-curriculumetan modu eraginkorrean nola integratzen den aztertuko dira, ikasleek inguruan duten mundua ikasteko eta esperimentatzeko duten modua eraldatuz.

Lan honek, dantza hezkuntza orokorrera gerturatu nahi izan du, Lehen Hezkuntzan aurrera eramateko planteamendu didaktiko bat aurkeztuz. Honen helburua, dantzen presentzia indartzea izan da, modu ludiko batean, arte hau Musika Hezkuntzako programazioan txertatuz. Horrela, dantza herrikoia balorean jarri eta giza-harremanetan beharko lukeen tokia aldarrikatu nahi izan da.

2. MARKO TEORIKOA

Gizakia komunikatzeko eta sozializatzeko mugitu egiten da eta dantzan egiten du (Maya, 2021). Dantzaz hitz egiterakoan, jauzia oinarri hatzen duten zenbait esamolde aurki daitezke; hala nola, latinezko *salire*, euskal *jauzi*, frantsesezko *sauter* eta espainiar arkaikoko *sotar* esamoldeak (Urbeltz, 2002). Adierazpen artistiko hau, musikarekin modu banaezinean lotuta doa, norbanakoari sentitzen duena adierazteko, besteekin komunikatzeko, imajinatze eta sortzeko aukera ematen diona. Beraz, musikaren zuzeneko bizipentzat har daiteke dantza, bai entzumenari dagokionez, baita interpretazioari dagokionez. Ekintza honek dauzkan adierazpen indibidualerako eta talde adierazpenerako ezaugarriek, ezinbesteko jarduera bihurtzen dute (Arriolabengoa, 2000).

Zalantzarik gabe, musikak zeregin garrantzitsua du dantza jardueran, gure zentzu erritmikoa behar bezala garatzeko ezinbestekoa baita (Trias, 1988). Dantzak mugimendua eta musika lotzen ditu, orduan, irakatsi ahal izateko bi aldeak ulertu behar dira, musika zein mugimendua (Dantzan Ikasi, 2022).

Horrez gain, Euskal Herriaren historian tresna identitario garrantzitsua izan da dantza, hizkuntzaren etengabeko debekuek bestelako adierazpideak jorrazteko beharra ekarri baitzuten. Dantza da jarrera baten aldeko edo aurkako indarra eta batasuna erakusteko tresna sendoenetako bat, beraz, dantzak funtzio bat betetzen jarraitzen du (Otamendi, 2015).

2.1. Dantza, lengoia unibertsala

Dantza kultura orotan, komunikatzeko, sentitzeko, adierazteko, konpartitzeko eta bizitzeko erabiltzen den oinarrizko lengoia da. Mugimendu horren barruan, teknika zein kode ezberdinak baliatuz, barruan dagoena ateratzen da, literatura hizkiez baliatzen den bezala (Araolaza, 2012; Maya, 2021). Horregatik, beste herrialde bateko dantza bat behatuz edo honetan parte hartuz, bertako lengoia ezagutzen ez badugu ere, daukan esanahia ulertzeko gai izan gaitezke, oinarrizkoenak diren alderdiak behintzat (Muela eta Señor, 1997).

Kultura tradizioaletan, dantza adierazpide kolektibo garrantzitsuenetako bat izan da betidanik. Ekintzatik haratago doan lengoia da; gorputzaren alfabeto propioak erabiliz gizarte taldeko arauak metaforikoki islatzen dituen (Dantzan Ikasi, 2015). Honela, hainbat elementuk eta portaerek harmonikoki elkarreragiten dute gizarte-testuinguru jakin batean

(Fuentes, 2006).

Dantzaren zentzuari dagokionez, historian zehar lau alderdi nabarmendu izan dira: izaera magikoa, izaera erlijiosoa, ikusgarritasunaren izaera eta jai-jolas izaera. Azkena da guregana indar handienaz iritsi den alderdia. Goatzeko aukera, jende berria ezagutzekoa, aisialdiko uneak partekatzea, zalaparta piztea... eskaintzen du dantzak. Bere funtzio ludiko eta sozializatzaile hauek direla eta, talde-kohesioa bultzatu eta gizartearekiko loturak ahalbideratzen ditu (Arriolabengoa, 2000; Zamora, 2005).

Gaur egun, halaber, erabilera ludiko eta sozialak aise egin du atzera. Izan ere, patroï sozial eta kultural berriak, gizartea homogeneizatu eta bideratzen ari baitira. Ondorioz, gizakiak bere beharrak alde batera utzi eta lan esparruan jartzen du arreta batik bat; eguneroko zeregin ugariak egin, azkar bizi eta ezarritako patroï itxiak jarraitzera eramaten duena. Honela, dantza ariketa fisiko huts bihurtzen da eta bere alderdi emozional eta sozialak alboratuta geratzen dira sarritan (Padilla eta Zurdo, 2009).

Gure dantzek, gainera, gizartea bildu, elkartu eta egituratzeko dohaina dute (Ibañez, 2015). Adibidez, soka-dantza izan da gizartearen botere-mailak ordezkatzeko koreografia; gizartearen kohezioaren adierazle, parte hartzaileak zubien bidez hautatzen baitziren, kategoria sozial batzuk dantzatik baztertuta utzita. Hau da, kohezio soziala hierarkizatua zen, eta sokaren buru izatea ohoretzat zeukaten (SOKA, d.g.). Ingurutxoetan esaterako, parte hartzen duten pertsonaia bakoitza desberdina izateak beraien artean desberdintasunak egotea eragiten du. Horrela, aberatsenak edo dantzari hoberenak besteengandik bereizten ziren, lehen edo azken posizioetan dantzatuz (Goñi et al., 2012). Noski, gaur egun, dantzak sistema izaera hori galdua du, baina gurean, oraindik ere, geratzen dira horren aztarnak. Izan ere, Urbeltzek, Aranburuk edo Lukuk aipatua baitute, *soinu-zaharren*, *mutil-dantzen*, *dantza-jauzien*, *maskaraden* edo *libertimenduen* helburua hau izan dela hain zuzen: gazteriak bere gaitasunak erakustea gizartearen aitzinean, eremu publikoan ardurak hartzeko prest daudela erakusteko (Ibañez, 2015).

Beste funtzio-ordena batean, hitzik gabeko adierazpen eta komunikazio gisa, dantza gizarte-prozesu baten parte dela esan daiteke (Fuentes, 2006). Adibidez, antzinako gizarteetan, arbasoek jainkoentzat egiten zuten dantza, eta horrela lortzen zuten beren gaixoen sendaketa, gerrarako prestatzea eta garaipena lortzea, ehiza eta uzta ona ziurtatzeko. Iniziazio errituetan, gazteek tribuaren aurrean dantzatuz, beraien burua erakusten zuten heldu moduan onartuak izateko. Azken urteetan, modernitateak ekarri dituen teknologia,

komunikabide eta kulturen gurutzaketen ondorioz, aldaketa handiak eman dira dantzaren esparruan. Ezin konta ahalako joerak sortu dira; bai teknikoki, estilo berriekin, sorkuntza esparruan, dantzari profesionalen profila edota dimentsio handiko ekoizpenak (Ochoa, 2004).

2.2. Euskal dantza tradizioa

Herri bakoitzak dantza propioak ditu; non herriaren, jendartearen edota momentuko egoeraren sena islatzen duten (Zamora, 2005). Euskal kulturaren dantza da euskaldunek espresatzeko daukaten modu esanguratsua, euskal senaren adierazle, metaforaz eta sinbologiaz beteta dagoen lengoiaia bat. Euskaldunok berbaz euskara erabiltzen dugun bezala, gorputz-lengoaiaren bidez euskal dantza darabilgu mintzatzeko. Horregatik ez da kasualitatea munduan barrena zabalduta dagoen euskal jendeak, euskaraz jakin ez arren, gure herriarekin identifikatzen duen elementu bereziki esanguratsu bat izatea dantza (Larrea, 2015; Goiena Komunikazio Taldea, 2021; Maya, 2021).

Aurretik aipatu bezala, dantzek funtzio ezberdinak dituzte gizartean. Euskal testuinguruan, gainera, hainbat eta hainbat dantza plazaratuak izan dira duela 400 urtetik, kasik etenik gabe, gure herrietako jai edo ospakizun ezberdinetan (Euskal Dantzarien Biltzarra, d.g.). Nekazal gizartetan, urtaro berrien etorrerak edota eguraldi mudaketek ekar zezaketen arazoei aurre egin asmoz jartzen zen herria dantzan. Euskal kulturaren horiek batzen dituen figura eta erritu ezberdinak daude (Urbeltz, 2002).

Inauteriek udaberriaren esnatzea ekartzen dute. Horri hertsiki lotuta datoz urteko lehen beroaldiak, eta ondorioz, landa eremurako gaitzak: eltxoak, pesteak edota lehorreak. Lurra esnatu, berari lagundu eta gaitzak aldentzeko ospatu izan dira inauteriak. Etimologikoki aztertzen jarrita, *inauteri* eta *aratzte* hitzek inausketa denbora adierazten dute, eta *aratzte*, berriz, kimatutako zuhaitzak landatzera. Inausketa zein landaketa, bat datoz ospatzen den urteko momentuarekin. *Zanpantzar*, inauterietako beste irudi nagusi bat, *San Panzudotik* omen datorrena. Izurriteek labore guztiak suntsitu arte erasotzen dutenean, eta jendea miserian murgiltzen denean, gosea eta desegituratze soziala izan daitezke ondorio tragikoenak, beraz pertsonaia hau, gosea hezurramitzen duen eraikuntza paradoxiko bat da. Hor ditugu baita ere iparraldeko maskaradak, udaberriaren esnatzearekin batera datozenak (Urbeltz, 2002).



1. irudia: Lantzeko inauteriak eta maskaren erabilera

Intsektuekin jarraituta, kea ere izan da hauek uxatzeko metodo ohiko bat. Beroarekin batera datoz eltxoak. Beroa, eltxoak eta kea lotuta, udako solstizioari egiten die erreferentzia, egungo San Juan bezperako suari. Belar txarrak erretzeko aprobetxatzen zen egun hau, zaharra berritzeko, eta bide batez, kea intsektuen ziztaden aurkako defentsa gisa erabiltzeko (Urbeltz, 2002).

Urteak aurrera joan ahala, XIX. mendean aldaketa handia gertatu zen ekonomian eta ideologian. Industrializazioaren eraginez, kanpo eragina nabaritzen hasi zen Euskal Herriko jendartean. Ondorioetako bat, dantza batzuk egiteari uztea izan zen, asko behin betiko galduz. Hemen jarri zen mugimendu nazionalista martxan, bertakoa balorean jarri guran. Horregatik, XIX. mende erditik aurrera Antonio D'Abbadieren *Fiestas Eúskararas* sortu ziren XX. mendera arte iraun zutena. Festa horietan, ohiturak eta tradizio herrikoiak salbatu nahi ziren, dantza taldeak toki batetik bestera mugituz, esaterako. Mugimendu hori mugarri izan zen galdu gabe zeuden dantza eta ohitura asko ezagutarazteko (Irigoien, 1993).

Modu herrikoiago batean ere eman zen dantza ikuskizunen bilakaera. Horretarako, hainbat herrietan, pertsona arduraduna edo dantza-maisua zegoen bertakoekin dantzaldiak antolatzeko, bai ikuskizunak zein plaza-dantzak. Zeregin horren arduradun bezala, pertsona hauek, ordainsari bat jasotzen zuten udaletxetik. Beasaingo Xabier Sarriegi (1959-2021), *Paxatxo*, dantza-maisu hauen azken adibidetako bat dugu. Era honetan, transmisioa jende guztien artean ematen zen, bertaratzen zen guztiak dantzatzen baitzuten modu autonomoan, musika edo erritmoa jarraituz (Aiko Taldea, 2020; Unanua, 2021; Irizar, komunikazio pertsonala, 2023ko otsailak 19).

Egun ere halako herri-dantzak mantentzen dituzten adibideak aurki daitezke, Oñatiko Korpus-festak esaterako. Badakigu, 1560. urtetik pasaden mendeko 70. hamarkada arte dantzarien jarduna jai horietako dantzara bideratzen zela. Alabaina, historia hurbilean leku gehiago irabazi du dantzak *txantxikuen* herrian: Batzokiko dantza taldea, Falange Espainiarraren Sección Femeninako dantzariak, Mikel Amas abadearen Araotzeko dantza taldea, *Izarrak* dantza taldea, *Oñatz Social Cultural Recreativa* eta egungo *Oñatz Dantza Taldea*. Herriko dantzak taldez talde eta belaunaldiz belaunaldi transmititzearen lana *Kapitain* bezala ezagutzen diren dantza-maisuei esker izan da, ardura hau sarritan familia berean mantendu delarik; esaterako, Alejandro Irizar (30. hamarkada) edo Jesus Irizar, *Txutxin* (1971. urtetik gaur arte), aita-semeak (Irizar, komunikazio pertsonala, 2023ko otsailak 19).



2. irudia: *Txutxin* dantza-maisua *Izarrak* dantza taldeko kideekin.

XX. mendean, nekazal testuinguruetatik at ere, folkloreak ezagutzan sakontzeko mugimendu bat eratu zen testuinguru urbanoetan, Gerra Zibil aurretik hasi eta gerraostean indartu zena, egoera politikoaren eraginez, identitate bila. Bilakaera horretan, Jose Migel Barandiaran folkloreak oinarritzko erreferentzia iturri izan zen (Larrinaga, 2007). XX. mendeko bigarren erdian, mugimendu honek izugarritzko hazkundera izan zuen dantza talde eta jaialdi ugariarekin, ixilpean lan egiten zuen jende asko dantza tradizionala sustatu nahian egonik (Araolaza, 2009; Bediaga, 2017).

Azken urteotan, informazioa ahoz belaunaldiz belaunaldi eskualdatzeko formula zaharra eta erabilia erori egin da transmisio-modu berrien aurrean. Gurasoen sinesmenak eta ezagutzak seme-alabei edo aitona-amonak bilobei helarazteak, bestelako transmisio bitartekariei bati bide eman die; eskola edo teknologia berrien esku geratuz. Aldaketa guzti horiek, dantza egiteko moldea mudatzea ekarri dute: korroan hasi ginen; soka-dantza, ingurutxo eta kontra-dantzetatik

pasatuta, bikote dantzetara iritsi ginen eta azkenik, norbanako bihurtu ditugu (Dueñas, 2007; barren.eus, 2023).

Oro har, gaur egungo euskal gizarte garaikideak, duela urte batzuetakoek ez bezala, tradizioa ez dio horrenbeste begiratzen. Modernitateak, teknologiek, komunikabideek eta kulturen gurutzaketak aldaketa handiak ekarri dituzte dantzaren esparruan. Gure lengoia eusteko formulak agortezinak badira ere, folklorea zerbait berezizat ez hartzeak euskal dantzen erabileraren atzerapausoa ekarri du. Horregatik, debaluazio kultural bat eman dela esan daiteke (Ochoa, 2004; Dueñas, 2007; Sánchez, 2007).

2.3. Dantza hezkuntza orokorrean

Hezkuntzaren xedea hurraren garapen osoa da, gaitasun ezberdinak bultzatuz bere autonomia, gizarteratzea eta ongizatea ardatz nagusitzat dituela (Eusko Jaurlaritza, 2014). UNESCOren Nazioarteko Batzordearen txostenak dioten moduan, hezkuntza eremuaren helburuetako bat norbanakoen artean gizarte-loturak jostea izan behar da, denek partekatutako erreferentziak oinarri hartuta. Kultura eta inguruaren arabera, usadioak eta baliabideak aldatu egiten diren arren, hezkuntzaren xedea gizakia gizartearen baitan garatzea izango da beti. Hori kontuan izanda, hezkuntza kultura eta balioak transmititzeko bidetzat hartzen da, gizarte-espazioak eraikitzeko tokitzat, denona izango den proiektu bati ekiteko gunez (Delors, 1996, apud Eusko Jaurlaritza, 2014).

Hurraren garapenerako, lengoia ezberdinen garapena oinarritzkoa da norbere burua adierazi eta besteekin komunikatzeko. Oinarritzko Hezkuntza Curriculumean (Eusko Jaurlaritza, 2015) ere horrela batzen da, *Komunikaziorako zehar kompetentzia* hezkuntza ibilbidearen giltzarrietako bat kontsideratuz. Kompetentzia horretan zenbat lengoia kontuan hartzen dira, gizabanakoak adierazpen tresna ezberdinak behar baititu. Esaterako, hizkuntzaren bidezko komunikazioa tresna egokia da kontzeptuak eta ideiak adierazteko, baina ez da bakarra. Komunikazio horretara soilik mugatzen den hezkuntzak edota lengoaien arteko oreka zaintzen ez duenak, hezkuntza ikuspegi mugatua izango du komunikazioaren garapenaren ikuspegitik (Ochoa de Eribe eta Araolaza, 2009; Eusko Jaurlaritza, 2014).

Ildo honi jarraiki, Curriculumean *“Hitzik gabeko hainbat kodetako informazioa ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea”* (Eusko Jaurlaritza, 2015, 32. or.) espresuki aipatzen da, non, kultur aniztasuna eta komunikazio tresnak balioestea diren kompetentzia honen oinarritzko osagai:

Hitzik gabeko kodeak, hau da, keinuak, dantza, musika, ikonoak, irudiak eta antzeko kodeak erabiltzeko trebetasuna da hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzia, eta bere xedea da kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adieraztea eta interpretatzea esparru pertsonal, sozial, akademikoko eta gainerako esparruetako berezko egoera ugaritan (Eusko Jaurlaritza, 2015, 32. or.).

Musikak eta dantzak barne mundu pertsonala azaltzeko bideak eskaintzen dituzte, honela pertsonaren osotasuna garatzeko aukera eskainiz. Hauen bidez, ideiez eta pentsamenduez gain, denok daukagun barne mundua adierazteko ezinbestekoa den gaitasun berezia lantzen da (Ochoa de Eribe eta Araolaza, 2009).

Dantza lengoian erreparatuta, gizabanakoak hainbat ekarpen garatzen ditu beregan dantzaren bitartez: gorputza, gogoak, pentsamenduak, irudimena, ideiak... Bere gorputzaren aukerak, bere indarra eta elastikotasuna deskubritzen ditu, saltoaren bidez grabitateari aurre egiten dio; erritmoaz, iraupenez, abiaduraz jabetzen da... Espazioa ere ezagutzen du mugimenduekin hautematean: dimentsioak, mailak, norabideak, fronteak eta energia-lerroak. Horregatik, haur-dantza ordezkazina da, gorputz-mugimendua egiten den jarduera bakarra baita, ez trebetasunaren arabera, baizik eta banaka adierazteko bitarteko gisa. Haurrak, dantzaren bidez, beste edozein jardueratan aurkitzen ez duen errealizazio-sentimendu bat esperimendatzen du, dantzak aldi berean bere ahalmen guztiak martxan jartzen dituelako. Dantza egitean, haurra ez da helburu batera iristeaz arduratzen, gorputza mugitzean bakarrik kontzentratzen da (Durán, 1995).

Dantza, prozesu artistiko-sortzaile gisa, erabat lotuta dago izatearen dimentsio emozionalarekin; horregatik sortzen da dantzatzeko bultzada, horretarako beharra. Mugimendua, ekintza eroale gisa, erabat lotuta dago desioarekin (alderdi emozionalarekin), baina baita borondatearekin ere, non pentsamendu erreflexiboak, hau da, arrazoimenak bideratzen duen. Dantzatzean hainbat gaitasun eta prozesu mental agertzen dira, hala nola pertzepzioa, arreta, kontzentrazioa, memoria, buru-arintasuna, abstrakzioa, dedukzioa edota irudimena (Monroy, 2003).

Hezkuntza gizabanakoaren garapen moduan eta kultura- eta sozializazio-prozesu iraunkor gisa ulertuta, dantzak, modu batean edo bestean, beti izan du tarte bat hezkuntza gauzatzeko (Pederio, 2013). Beraz, hezkuntza eta komunitatearen kultur ondarea aintzat hartuta, eta eskola bizitzaren parte dela jakinda, dantza ezin da hezkuntzatik kanpo gelditu (Ochoa de Eribe eta Araolaza, 2009). Izan ere, honako hau adierazten dute Heziberri

hezkuntza-ereduaren xedeek: “Kulturaren oinarrizko elementuak eskuratzeko prozeduretan alfabetatzea – dimentsio guztiak modu orekatuan integratuz, euskaldunetik unibertsalera –, eta jakintza horiek modu kontziente eta integratuan erabiltzea, bizitzaren maila guztietako egoerak eta problemak konpontzeko, eta hobekuntzak egiteko aukera berriak emateko” (Eusko Jaurlaritza, 2014, 8. or.).

Dantza eskola eremuan

Aurretik aipatu da dantza komunitatearen adierazpenerako baliabide bat dela eta historikoki gizartearen sena islatzeko balio izan duela. Baliagarria da, baita ere; pertsonak jendartean parte hartzeko, horiek integratzeko eta herri baten kultur ondarea adierazteko. Hau da; izan dena, dena eta izango dena adierazteko. Era berean, hezkuntza kultura eta balioak transmititzeko bidea dela kontuan hartuta (Eusko Jaurlaritza, 2014), dantza ikas-komunitateak landu beharreko jarduera izan beharko da, eskola mailan antolatzen diren ospakizun, festa edo ekintzetan.

Hezkuntza munduan, bi eratako jaiak ospatu ohi direla esan daiteke. Alde batetik, eskolan bertan ospatzen direnak daude, ikastetxeak barne gertakari bat ospatzeko asmatzen dituenak. Bestalde, herriko jaiak daude: inauteriak, Gabonak edota udaran sartzea, non herri eta kultura bakoitzeko ohiturak azpimarratzeko egiten diren. Hauetako jai bakoitza, hainbat osagai kultural eta naturalez, abesti, dantza, esaera zaharrez osatzen da. Haurrak eskolan ekintza horiek bizi behar ditu, osagai guztiak esperimentatuta, abesti, tradizio eta zeinu batzuekin ohitzeko eta bereganatzeko. Aipaturiko edozein jaietan, garrantzitsua da umeek parte hartzea, bai prestakuntzan eta baita ospakizunean ere, horrela gertakizun hori bereganatu egingo baitute (Alzola, 1991).

Horrez gain, dantzak erabilera zuzena dauka umearen gorputz eta musika heziketa esparruetan. Mugimenduarekin haurrak, gozatu egiten du korrika, saltoka, keinuka, dantzan... dabilenean. Horrek esan nahi du haurra kanpoko munduarekin erlazionatzen dela eta bere energia deskargatzen duela. Horri musika batzen bazaio, haurraren adierazpena dantzara bideratzen da; honela, barne bizipenak adierazteko eta sozializatzeko aukera ematen du. Horregatik, dantza ondarea baliabide natural eta erosoak izan daiteke garapen psikomotorra bultzatzeko (Muela eta Señor, 1997; Martín, 2005).

Musika Hezkuntzan, entzumena eta mugimendua elkarreragileak dira. Hau da, musikaren bitartez mugimendua estimulatu da, honela umeak bere gorputz baliabideak

garatuz. Aldi berean, mugimenduaren bitartez musikarekiko hurbiltasuna eta ezagutza ere lortzen dira, musika bera modu osoago batean adierazteko aukera abian jarritz (Vicente, 2009).

2.3.1. Dantzaren didaktika

Dantzaren praktika ikasgelan arrakastaz aurrera eramateko, jarduera ahalik eta modu naturalenean planteatu behar da hasiera-hasieratik, bizipenak beti presente egonik. Horretarako, herri xeheak erabili duen transmisio-eredu tradizionalen ditugu gakoak. Gure aitona-amonek dantzatzen, imitatzen eta dantzaldian zuzenean parte hartzen ikasi zuten, eta hori guztia gozamenetik abiatuta. Mugimendu horiek, musikarekin zuzenean lotuta ematen ziren, musikarekin konexioa sortuz. Hortik ondoriozta dezakegu gure proposamenak beti musikatik eta dantzaren praktikatik abiatu behar direla, imitazioa metodotzat erabiliz eta ikuspegi ludikoa ahaztu gabe (Arriolabengoa, 2000).

Irakasleak, umeekin dantza jarduerak bultzatzerakoan; sentiberatasuna, haurrak dantzara hurbiltzeko grina eta barrutik interpretatzeko gaitasuna transmititu behar ditu (Monroy, 2003). Hau da, dantza modu egokian abian jartzeko, gidariak testuinguru eta talde dinamika aproposak bultzatu beharko ditu (Dantzan Ikasi, 2022). Irakasleen artean, ordea, ohikoa izaten da argitaratuta dauden mugimendu eta jolas metodo ezberdinetara jotzea, ikasgai hauek antolatzeko ereduena bila. Haatik, horiek aurkitzeko ez dugu zertan urrutira joan behar, herriko ondare kulturalak baliagarriak diren jolas eta dantzak biltzen baititu (Maya, 2003). Dantza herrikoiak egitea interesgarria da haurrak bere komunitateko musika ezagutzeko, kultura-sustraiekiko identifikazioa sustatzeko eta identitate kolektiboa garatzeko (Arriolabengoa, 2000; Merlos, 2020).

Euskal Herriko folkloreak baliagarriak dituen dantza asko ditu, bai, baina askotan erreperitorio edo dantza jakin batzuk erakustera mugatu ohi gara. Dantzen oinarrietara jotzea egokia litzateke, egiturak eta erritmoak barneratzeko, ulertzeko eta jolasteko. Horregatik, haurrekin dantza-prozesu ludiko bat eraikitzea funtsezkoa da bi alderdi argi edukita: haurren interesak eta maisuaren interesak (Monroy, 2003; Dantzan Ikasi, 2022).

Bestalde, ariketa ezberdinak planteatzerakoan, haurren garapenari egokitu beharko dira. Izan ere, beraien ezagutzak jardueraren fruitu baitira, teoria konstruktivistak dioen bezala. Horrela bada, ikaste prozesuan haurren garapen estadioa aintzat hartuko da ikaskuntzaren antolakuntza ezagunetik ezezagunera bideratuz. Horrez gain, harremanak eta testuinguru sozialaren eragina zaindu beharko da (Eusko Jaurlaritza, 2014).

Orokorrean, jolasa oso garrantzitsua da haurrentzat, euren gozamenerako eta garapenerako funtsezkoa baita. Bost-sei urterekin, kolaboraziorako eta gainerakoekin jolasteko lehenengo urratsak ematen hasten dira (Nafarroako Gobernuak, d.g.). 6/7-12 urte tartean, haurrak hainbat ikuspuntu kontrolatzeko gaitasunak garatzen ditu Piageten garapenaren teorian jasotzen den bezala. Garapen horri esker; tarteak, distantziak eta luzerak ulertzen ditu eta koordenatu-sistema bat sortzera iristen da. Ondorioz, haurrak kausaren eta efektuaren arteko erlazioen ulermena garatzen du, hau da, denboraren eta espazioaren kontzeptuen ulermen logikoa (Damián eta Tron, 2011).

Jacques-Dalcroze "Rythmique" metodoa baliabide didaktiko gisa

Emil Jacques-Dalcroze musika-pedagogoak gorputz-mugimenduan oinarritzen zen metodo aktiboa abian jarri zuen. Dalcroze esanetan, musika eta gorputz mugimendua aska ezinak dira, erritmoa sentitu eta barneratzeak gorputzaren berehalako erantzuna eragiten baitu. Horregatik, autore honek, mugimenduaren bidezko musika hezkuntza planteatu zuen bere metodoan. Bertan, gorputza ikaskuntzaren tresna nagusizat jotzen da, adimenarekin batera, haurren musikaltasuna eta garapen osoa lortzeko. Metodoaren abiapuntua esperientzia sensoriala eta motorra dira musikarekiko sentsibilitatea landuz. Ondoren, mugimendu horien ulermenetik, ezagutza intelektuala garatzen joango da. Beraz, metodo honetan erritmoa ez da musika-teknikaz ezta gorputz-teknikaz arduratzen, musikaren eta gizabanakoaren arteko harremanaz baizik. Giza kulturaren metodo bat izan nahi du; bitarteko bat, helburu bat baino gehiago, haren izaera orokorrak gorputzari, emozioei eta pentsamenduari eragiten baitie (Trias, 1988; Bachmann, 1994; Vicente, 2009).

Dalcroze hezkuntza prozesua zazpi eredu didaktikotan mailakatzen da, jarduera intelektual, eragile eta afektiboak abian jartzeko: *espazioaren zentzuaren jabeakuntza, denboraren zentzuaren garapena, pieza musikalekiko atxikimendua, ariketa motor eta psikomotorrak, irudimenarekin loturiko jarduerak, dantza eta jolas erritmikoak* (Trias, 1988; Bachmann, 1994).

Eredu didaktiko horiek aurrera eramaterakoan, jolas giroa funtsezkoa izango da. Azken finean, izaera ludikoak ezagutzak barneratzen eta erosotasunez komunikatzen laguntzen baitu, haurren garapen fisiko, intelektual zein soziala integratuz (Bachmann, 1994; Monroy, 2003; Dueñas eta Larrinaga, 2011).

3. METODOLOGIA

Lan hau aurrera eramateko, lehenengo eta behin dantza herrikoien inguruko informazioa bildu da iturri bibliografikoak, webguneak eta zuzeneko testigantzak kontsultatuz.

Jarraian, eskola testuinguruan dantza bultzatzeko asmoz, bere egungo errealitatea aztertu da. Azterketa horrek bi alderdi nagusi ezberdintzen dira. Alde batetik, Bilboko dantza taldeen egoera eta umeeekin daukaten lotura zein den ikertu da. Bestetik, Bilboko ikastetxe batean dantzarako ohitura eta lanketa aztertu dira.

Dantza taldeen egoera ikertzeko, bi iturri nagusi erabili dira: aditu bati egindako elkarrizketa eta hiriko dantza taldeei zuzendu zaien galdetegia. Elkarrizketatua, Emilio Xabier Dueñas izan da; euskal folklorean aditua eta dantza munduan jakintsuenetarikoa kontsideratzen dena. Dantza taldeei inkesta pasatu ahal izateko harremana, Bizkaiko Dantzarien Biltzarra erakundearen bitartez gauzatu da.

Ondorengo urratsa, interbentzioa aurrera eramango den ikastetxeak gure dantzei beraien programazioan zenbaterainoko lekua egiten dien aztertzea izan da. Informazio hori jakiteko, Musika Hezkuntzako irakasleei elkarrizketa semi-estrukturatua egin zaie. Horrez gain, galdeketa bat gauzatu da ahoz Lehen Hezkuntzako 1. mailan, dantzekiko atxikimendua aztertzeke.

Ostean, euskal dantzek eta hezkuntza formalak daukaten hartu-eman urria identifikatu eta gero, esku-hartze bat planteatu da egoera hori hobetu asmoz. Hasieran lehenengo mailari soilik zuzentzeko asmoa bazegoen ere; prozesua aurrera joan ahala, bosgarren mailakoak proiektuan musikari bezala inplikatzeko aukera sortu da.

Bukatzeko, prozesuan zehar lortutako informazioa eta emaitzak oinarri, etorkizunari so egiten dion hausnarketa bat bidean jarri da.

4. LANAREN GARAPENA

Gaiaren gaineko informazioa bildu ostean, garrantzitsutzat jo da euskal dantzak hezkuntza orokorrean lantzea eta, ondorioz, hezkuntza formalean integratzea. Horretarako beharrezkoa izango da dantza herrikoia Lehen Hezkuntzako musika klaseetara eramatea baliabide didaktiko egokiak erabiliz. Kasu honetan, Bilboko ikastetxe batei zuzendutako

esku-hartzea abian jarri da. Horretarako, bere errealitatea aztertu, eta hori jomugatzat hartuz, euskal dantza baten lanketa proposatu eta aurrera eraman da.

Ikastetxea Ikastola bat da, itunpekoa eta D eredukoa. Lehen Hezkuntzan maila bakoitzeko bi ikastalde ditu, non ikastalde bakoitzak hogeita bost ikasleko kopuruak dituen, gutxi gora behera. Planteamenduarekin hasi aurretik, Bilboko euskal dantzen inguruko errealitatea aztertu da.

4.1. Errealitatearen azterketa

Lan honetan, bi eremu desberdinen azterketa planteatzen da; alde batetik, umeekin jarduten duten Bilbo dantza taldeen egoera, eta bestalde, Lehen Hezkuntzako ikastetxean daukaten dantza herrikoien planteamendua.

4.1.1. Diseinua

Bilboko dantza taldeen errealitatea

Bilbon euskal dantzen inguruan dagoen mugimendura hurbilketa bat egin nahi izan da, hiriko umeek euskal dantzen inguruan eduki dezaketzen ezagupen eta atxikimendu neurria jakiteko.

Horretarako dantza munduan aditua den folklorista eta etnografo bizkaitar baten laguntza jaso da, Emilio Xabier Dueñasena. Elkarrizketa bat egin zaio, galdera semi-estrukturatu batzuk planteatuz. Batutako informazioa transkripzio bidez batu da (1. eranskina).

Horrez gain, Bizkaiko Dantzarien Biltzarra erakundearen bidez, federatuta dauden Bilboko dantza taldeen kontaktua lortu da. Talde horiei, Google Inprimakiak zerbitzua erabiliz sortu den inkesta bat pasa zaie (2. eranskina), beraiekin kontaktatzeko bide ezberdinak erabiliz; hala nola helbide elektronikoa, sare sozialak edota telefono kontaktuak. Hainbat eratako galderak erabilita, haurrek dantza taldeetan jarduteko duten aukera aztertzea izan da galdetegiaren helburua. Ondoren datu horiek erregistratu egin dira (3. eranskina).

Ikastetxearen euskal dantzen inguruko errealitatea

Lehen Hezkuntzan, euskal dantzek daukaten presentzia aztertu gura izan da; hau da, eskaintzen zaien denbora eta lanketa nola bideratzen duten. Horrez gain, lehenengo mailan azterketa zehatzagoa aurrera eraman da.

Ikastetxeko bi musika irakasleak elkarrizketatu dira dantzaren hezkuntzarekiko daukaten ikuspegiak ezagutzeko, galdera semi-estrukturatuak planteatuz (4. eranskina) eta erantzunak idatziz erregistratuz (5. eranskina).

Lehenengo mailako ikasleek dantzarekiko daukaten loturaren berri izateko, dantza jarduerarik gauzatzen duten galdetu zaie, eta ea jardun hori euskal dantzetara bideratzen duten. Galdetegia ahoz gauzatu da, emaitzak jasotzeko erregistro fitxa bat sortuz (6. eranskina). Ondoren, emaitza horiekin grafikoak sortu dira (7. eranskina).

4.1.2. Emaitzak eta diagnostikoa

Behaketak 2023ko otsailean gauzatu dira. Bilboko egoera aztertzerakoan, lehenengo Bizkaiko Dantzarien Biltzarrera jo da. Bere bitartez lortutako kontaktuekin, hiriko dantza taldeetara gerturatu ahal izan da. Ikastetxean bi musika irakasleak elkarrizketatu dira eta lehenengo mailako ikasleei buruzko informazioa jaso da.

Bilboko dantza taldeen errealitatea

Jasotako informazioaren arabera, 70. hamarkadan, Euskal Herrian izan zen dantza taldeen *booma* ere igarri zen Bilbon, dantza talde askoren sorrera ekarrita. Dantza talde horietako batzuk egun beraien ibilbidearekin jarraitzen dute, eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren barruan sartzen diren taldeak hamar dira. Inkesta talde guzti horiei helarazi zaien arren, zazpi izan dira erantzun bat eman dutenak.

Erantzuna eman duten dantza talde guztiek sei urtetik aurrerako haurrentzat klaseak eskaintzen dituzte Bilboko auzo ezberdinetan. Gainera, denek egiten dituzte emanaldiak Bilboko auzoetako jai zein ospakizunetan, beraien jarduna erakusgarri eginez. Taldeen ume kopuruak erreparatuz, zazpi taldeen artetik hiruk 0-20 ume tartean dituzte. Beste horrenbestek 0-40 artean eta bakar batek 60-80 artean. Beraz, zazpien artean 260 ume dituzte gehienez.

Ikastetxearen euskal dantzen inguruko errealitatea

Ikastetxean, Lehen Hezkuntzan, euskal dantzek daukaten presentzia erreparatzen jarrita, ikusten da ikastetxean euskal dantzek ez daukatela toki berezirik. Musikako bi irakasleek euskal dantza, eta orokorrean kultura, programazioan txertatuta egon behar dela aldarrikatzen duten arren, errealitatean gaitza zaiela azpimarratzen dute.

Lehenengo mailako ikasleen egoerari erreparatuz, 49 ikasletatik 23k (%40,8) egiten dute dantza, non horietatik gehienak, 20 (%86,9), neskak diren. 49 ikasleetatik, baina, 3k praktikatzen dituzte euskal dantzak, hau da, ikasleen %6,1ak.

Emaitzak aztertu ostean, euskal dantzen egoera nolakoa den ikusteko aukera daukagu. Bilbon zehar taldeak egon badaude, baina ez ikastetxearen errealitate hurbilean. Bestalde, talde horietako haur kopurua nahiko apala da, 260 ingurukoa. Egoera hori, gainera, lotuta doa ikastetxeko lehenengo mailan jasotako datuekin; hau da, dantza taldeetan parte hartzen duten hiru ikasle bakar aurkitu dira. Horrez gain, dantza herrikoiek ez dute kasik lekurik ikastetxeko programaketan.

Laburbilduz, Bilbon euskal dantzekin lotura daukaten haurren kopurua oso murrizta dela ondoriozta daiteke. Aztertutako ikastetxearen kasuan ere, haurrek dantzarekin harremantzeko daukaten aukera oso mugatua da.

4.2. Esku hartzea

Ikasleek euskal dantzekiko sumatu den atxikimendu urria kontuan hartuta, ikastetxean hauek bultzatzeko premia sortu da. Horri erantzun nahian, Lehen Hezkuntzako 1. eta 5. mailako taldeekin aurrera eramateko lan proposamen bat sortu da.

4.2.1. Proposamen didaktikoaren diseinua

Esku-hartze hau, musika irakasgaien lehenengo eta bosgarren mailako ikasleekin aurrera eramateko planteatu da. Proposamen honetan, bi helburu nagusi planteatu dira: adierazpen indibidual zein taldekoa garatzea eta euskal dantza herrikoiekiko hurbilketa bat egitea.

Horretarako, *Zazpi Jauzi* izeneko dantza hautatu da; daukan egitura, musikaltasuna eta dantza ezaugarriak aproposak direla ikusi baita (9. eranskina). Horrela, lehenengo mailako ikasleek, dantzari rola hartuko dute eta bosgarrenenekoek, aldiz, musikariarena txirula joaz.

Lehenengo mailara eramandako proposamena, pare bat hilabetetan gauzatzekoa da. Lanketa hau hiru fasetan antolatuta dago: proiektuaren aurkezpena, dantza ikastea eta ikastetxeko jolastokian plazaratzea. Prozesu hau aurrera eramateko, garrantzitsua izango da klasean errutinak ezartzea, dantzaren bizipena sustatzea eta konpromisoa hartzea.

Bosgarren mailako ikasleen kasuan, instrumentuak jotzeko daukaten ohitura probestuz, emanaldi honetan parte hartzeko gonbidapena luzatu zaie. Aurrera eramateko erabakia hartu ondoren, lehenik, instrumentazioa adostu (txirula, klarineta eta perkusio txikia) eta bost ahotsetako moldaketa (bi ahots melodiko eta hiru erritmiko) bat egin da, horren partitura sortuz (8. eranskina).

Pieza musikalaren lanketa hiru fasetan antolatu da: proiektuaren aurkezpena eta instrumentuen banaketa, abestia jotzen ikastea (hasieran ahotsak banatuz eta gero guztiak elkarrekin) eta ikastetxeko jolastokian plazaratzea.

Bigarren fasearen amaieran, bi mailak elkartuko dira entsegu bat egiteko. Era horretan, musikari zein dantzarien arteko zubiak eraiki nahi dira, musika dantzara molda dadin eta dantza musikara.

Ebaluaketari dagokionez, errealitatearen azterketa hasierako ebaluazio gisa erabiliko da. Ebaluaketa jarraitua, ordea, zuzeneko behaketaren bidez gauzatuko da. Azken ebaluazioan ikasleen bizipen zein iritziak jasoko dira, besteak beste. Horrez gain, plazaratutakoaren aurrean ikas-komunitateak (ikastetxeko ikasle, irakasle zein langileak) izandako erantzuna jasoko da zuzeneko behaketa bidez.

4.2.2. Proposamenaren garapena eta emaitzak

Diseinatutako esku-hartzea aurrera eraman ahal izan da bere osotasunean, 2023ko martxo eta apirila bitartean (9. eranskina). Ikasleriaren gehiengoa proiektuan inplikatu da eta aurrera eramateko esfortzua nabaria izan da. Musika irakasleen partetik zein ikastetxearen partetik, babes osoa jaso da lanketa aurrera eramaterako orduan. Lehengo eta bosgarren mailakoen klase antolamendua desberdina izan denez, egutegi paralelo bat ezarri behar izan da, ikuskizun eguna oinarri hartuta.

Lehenengo mailako ikasleentzat, proposamena interesgarria izan da, ikasitakoa plazaratzean, zentzuzko eta erabilgarria den gisara ikusten baitute. Horrez gain; gogoak, grinak zein urduritasunak ere sortu dira. Hasierako saioetan, gehiegizko gogoberotasuna

tarteko, behar zena baino mugimendu eta zalaparta gehiago sortu da. Dena den, klaseak aurrera egitearekin, joan-etorri horiek gutxiagotuz joan dira. Dantza jardueran ikasleek erakutsi duten jarrera eta erantzuna azpimarragarria izan da, aurrerapauso nabariak eman baitituzte.

Bosgarren mailakoen kasuan, planteamendua, oro har, erronka bat izan da. Irakaslearen esanetan, ikasle hauek ez zeuden ohituta ahots desberdinez osatutako piezak interpretatzen, ezta ikasitako pieza horiek publikoki aurkezten. Gainera, beraien interpretazioa dantzara egokitu behar izan dute zuzeneko jarduera batean. Hori gutxi ez eta, azken urteetako pandemiak ekarritako murrizketak tarteko, instrumentuak erabiltzeko ohitura berreskuratu behar izan dute. Dena den, gogotsu aritu dira lehen mailako dantzarien musikari rolean.

Hainbat izan dira lanketa honi lotuta etorri diren lorpenak. Txikienen kasuan, espazio eta denboraren erabileran aurrerapausoak eman dira, saioetan zehar poliki-poliki garatzen joan direnak. Horrez gain, dantzak dituen funtzio sozializatzaile, musikal eta ludikoak probestuz, beraien arteko harremanak hobetu dira.

Musikalki ere garapen nabariak eman dira. Lehenengo mailakoen kasuan, dantzatzerako orduan pieza musikalaren pultsuak edota esaldien osaerak daukan garrantziaz jabetzen joan dira modu inkontziente batean. Musikarien kasuan ere, perkusiozko instrumentuen garrantziaz ohartu dira. Gainera, azken urteotan, egoerak horrela behartua, eduki dituzten mugak gainditzeko aukera izan dute, abesti bat publikoki lau ahotsetan (bi melodiko eta bi perkusiozko) interpretatuz.

Horrez gain, bada beste puntu garrantzitsu bat azpimarratzeko: dantzak eraiki dituen zubiak. Alde batetik zubi musikalak ditugu. Horrekin, dantzak musikara eta musikak dantzara egokitzeko gaitasuna garatu dutela esan gura da, dantzaren funtzio musikalaria esker. Eraikitako beste zubi bat zubi sozializatzailea litzateke. Ekimen honi esker, bi mailen arteko erlazioak sortu dira, dantzak dauzkan funtzio sozializatzaileak probestuta.

Azpimarratzekoa da bi adin ezberdinetako umeen artean sortutako lotura. Txikienek pozarren zeuden nagusiagoekin dimentsio honetako ekimen bat aurrera eramateko, eta nagusienak, lehenengo mailakoei arreta eskaini eta babestu dituzte.

5. ONDORIOAK

Lan honetan gauzatutako ikerketa mugatua izan den arren, ikastetxearen eta bere inguruneko dantzaren osasun diagnosi bat egiteko baliagarria izan da. Gaiari gehiago murgildu eta irakurketa zehatzago bat egiteko, datu bilketa zabalagoa beharko litzateke, egungo egoeraren zergatien sakontze aldera.

Ikerketaren emaitzetatik ikusi da planteamendu didaktikoa aurrera eraman den ikastetxearen auzoan, hau da, ikasleen testuinguru hurbilean, ez dagoela dantza talderik. Halaber, garbi geratu da Bilbon taldeak egon badaudela, non Lehen Hezkuntzatik aurrerako haurrentzat dantza klaseak eskaintzen dituzten. Horrez gain, talde horiek emanaldiak eskaintzen dituzte urteko egun desberdin eta leku anitzetan; beraz, ikusgarritasun bat badaukate. Haatik, taldeen haur kopuruak aztertuta, garbi dago ikusgarritasun hori ez dela haurrak gerturatzeko ekintza erabakigarri bat.

Gure dantzek bere garaian aurrerapen eta aldaketa positibo asko izan zituzten arren, esan daiteke erronka kezkarri batzuei ere aurre egin beharrean dabiltzala gaur egun. Globalizazio eta kultura menderatzaileen eraginez, praktika tradizional zein herrikoiak ahaztu edo estalita geratzen ari dira komertzialagoak bultzatzen dituztenen mesedetan, esaterako, plataforma digitalak. Horrek kultura galtzea zein homogeneizatzea dakar. Egoera horren aurrean herri-mugimenduak beharrezkoak eta mugari direla ikusi da, bertakoa zaintzeaz arduratzen diren mugimenduak halaber.

Arestian aipaturiko plataforma horiek indibidualismo eta pasibotasunera ere eraman gaitzake. Dantzaren duenak, ekintzaren alderdi aktiboak, jarduera indibidual bat gauzatzen du aparailu elektronikoen baten aurrean, non hartzaileak, ekintzaren alderdi pasiboak, munduko beste toki batetik ikus dezakeen. Horrek dantzaren funtzio garrantzitsuenetarikoa, elkar-ekintzak eragiten duen funtzio sozializatzailea, kolokan uzten du. Gainera, elkarren arteko komunikazio lengoia moduan daukan zentzuak behera egiten badu, dantzaren erabilera zalantzan jartzera iritsi gaitzake.

Pasibotasun horren beste arrazoi bat dantza komertzializatuegia bihurtu dela ere izan daiteke. Horren eraginez azken urteotan gehiago zentratu da itxuran, teknikan, ikuskizunean eta alderdi komertzialean batik bat. Azken finean, dantza munduaren profesionalizazioa izango litzateke aipatu berri den afera hori. Horrek herrikoi kontzeptua galbidera eramatea dakar, dantza herriaren esku utzi beharrean bakarren batzuen aukeren

artean egonik. Ondorioz, lanean zehar horrenbeste aldiz aipatu diren funtzio zein onurak baztertu egingo lirateke hainbat pertsonen bizimoduan. Beraz, arazoa ez litzateke dantza jardunean egongo; gizartean baizik, gizarte aldaketan eta jendearen pentsamolde zein bizitza estilo aldaketetan.

Garrantzitsua izango da, orduan, alderdi horiei heldu eta dantza herrikoi iraunkorra sustatuko dituzten ekinbide berriak eraikitzea, aniztasuna balioetsiko dutenak, dantzariak babestuko dituztenak eta dantzarietarako ingurune osasungarri zein errespetuzkoa sustatuko dutenak. Horretarako gune egokia da, zalantza barik, hezkuntza.

Lan honetan bideratu den planteamendu didaktikoarekin, eta dantza tradizionalak dauzkaten funtzioei esker, ikasleen garapena eta ongizatea berma daitezkeela ikusi da. Musikaren ikaskuntzan zein esperientzian aberastasun bat eskaintzeaz gain, ikasleen gorputz-kontzientzia eta koordinazio sistema bat osatzen laguntzen dutela behatzeko aukera egon da, ikasleak lengoia honen bitartez modu kontziente eta osoagoan adieraztea lortuz.

Kulturalki ere oso aberasgarriak direla ohartzeko aukera egon da, kultur-aniztasuna sustatzen duen eta aldi berean norberaren sustrai kulturekin konektatzeko aukera ematen dutelako. Onura horiek bakoitzaren zein taldearen adierazpenean islatuta agertu dira, izan ere, ikasleen mugimendua beste batzuekin koordinatu ahal izan da, modu horretan erritmoa eta koreografia bateratuz. Gainera, ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzeko aukera eman du esku-hartzeak, bide batez musikarekin modu sakonago batean harremanak eta irakasgaietarako interes atxikimendua handituz.

Hainbat aspektu tarteko, erronka esanguratsu bat izan da interbentzio hau aurrera eramatea. Ikastetxeko musika irakasleei nire ideia mahai gainean jartzean, begi onez hartu zuten, planteamendu aberats eta mamidun baten gisan. Lanketaren emaitza ikastetxearen aurrean aurkezteak, harrera ezin hobea eduki zuen ikasle, irakasle zein ikastetxeko langileen artean. Ondorioz, planteamendu didaktikoan ezarritako helburuez gain, helburu pertsonalak ere aise bete direla esan daiteke.

Dena den, dantzak eskaintzen dituen onura eta funtzio guztiak ahalik eta gehien garatu ahal izateko, proiektuari jarraikortasun bat eman beharko litzaiokeela uste da. Horretarako, ongi egongo litzateke dantza bakarrera mugatu beharrean, proposamena errepertorio zabalago batera bideratzea, urtean hiruzpalau dantza dituen errepertorio bat eratuz. Ugariak dira horretarako erabil daitezkeen euskal dantzak: Txulalai, San Petrike,

Zapatagin, Luzaideko esku dantza, Baztango esku dantza, Buhameak badakite, Almute dantza, Txakolin, Katadera dantza, Talai dantza, etab; euskal dantza-ondarea oso aberatsa baita. Bestalde, aurkeztutako planteamenduan dantza ikastetxeko patioan modu informal batean azaleratu den arren, beste aukera formal batzuk ere badaude; hala nola inauteriak, Gabonetako festak edota ikastetxeko jaialdia, non ikasleentzat hauek ospatzea oso garrantzitsua den.

Lan proposamen honi jarraipena ematekotan, beste jakintza-arlo batzuen parte-hartzea interesgarritzat jotzen da, Gorputz edo Gizarte Hezkuntza kasu; dantzak gorputz lengoaia eta mugimenduarekin daukan erlazioa estua da eta kultur sustrai sakonak baititu. Dena den, ezin ahaztu musikaren bizipena oinarrian duela eta horregatik, dantzak musika hezkuntzan eduki behar duen lekua azpimarratu eta aldarrikatzen da.

6. ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA

Ikerketa hau planteamendu etiko batetik gauzatu da. Hau da, ikerketan zehar parte hartu dutenen ongizatea une oro babestu da. Datuen babesa eta konfidentzialtasuna irmoki errespetatu dira, lanean zehar gauzatu diren elkarrizketetako beharrezkoak eta onartuak izan diren atalak soilik aurkeztuz. Parte hartzaileek, hasiera-hasieratik ikerketaren nondik norakoak ezagutu dituzte, hala nola, helburuak edota beraien laguntzaren beharra. Lanean beraiekin aurrez aurre jarduteko beharra egon dela ezagutu ostean egin dira elkarrizketak. Horrez gain, beraien pribatutasuna ere momentu oro ziurtatu dira, baita datuen tratamenduaren konfidentzialtasuna ere, lanerako beharrezkoak diren zatiak soilik aurkeztuz.

7. BIBLIOGRAFIA

- Aiko Taldea. (2020ko apirilak 4). *Eitb Kultura* :: AIKO Taldea [Bideoa]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=mvtCPUFB7m0>
- Alzola, N. (1991). Ingurune fisiko eta sozialaren aurkikuntza lantzeko hainbat ekintza. *Jakingarriak*, (18), 17-21.
- Araolaza, O. (2012). *Euskal dantza. La danza vasca. Basque Dance*. Etxepare Euskal Institutua.
- Araolaza, O. (2009ko uztailak 7). Amateurrak vs profesionalak. *dantzan.eus*. <https://dantzan.eus/kidea/oier/amateurrak-vs-profesionalak>
- Arriolabengoa, M. J. (2000). La Danza en la Escuela. *Boletín ISME-España*,(8), 5-8.

- Bachmann, M. L. (1994). *La rítmica Jaques-Dalcroze. Una educación por la música y para la música*. Pirámide.
- barren.eus. (2023ko apirilak 25). Dantzaren historia dantzan jarri dute «Korrotik pikutara» saioan. *barren.eus*
<https://barren.eus/albisteak/kultura/9505-dantzaren-historia-dantzan-jarri-dute-korrotik-pikutara-saioan>
- Bediaga, M. (2017). Herri dantza: Muxikoen hedapena. Hurbilketa sozio-sinbolikoa. *Txistulari*, (250), 12-16.
- Damián, M., eta Tron, R. (2011). Los tipos de juegos que eligen los niños de primaria superior. *Revista Electrónica de Psicología Iztacala*, 14(4), 191-212.
- Dantzan Ikasi. (2022 apirilak 6). Dantzan irakasteko baliabideekin hartu-emanean Patxi Labordarekin. *dantzan.eus*.
<https://dantzan.eus/kidea/DantzanIkasi/irakasteko-baliabideak-patxi-laborda>
- Dantzan Ikasi. (2015 urtarrilak 27). *Dantzaren funtzio eta politikaz, Antton Lukuren begirada*. *dantzan.eus*. <https://dantzan.eus/kidea/DantzanIkasi/lukuren-kronika>
- Dueñas, E. X. (2007). Un horizonte difuso: danza y tradición. In Dueñas, E. X. (Ed.), *Jentilbaratz: cuadernos de folklore 9* (315-332 or.). Eusko Ikaskuntza.
- Dueñas, E. X. eta Larrinaga, J. (2011). *Jentilbaratz, cuadernos de folklore: Haur folklorea Euskal Herrian. Irakaskuntzako materialak = El folclore infantil en Euskal Herria. Materiales para su enseñanza*. Eusko Ikaskuntza.
- Duran, L. (1995). La importancia de la danza infantil en el proceso educativo. *Tramoya*, (42), 107-110.
- Euskal Dantzarrien Biltzarra (d.g.). *Historia*. <https://dantzagune.eus/historia/?lang=eu>
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). *Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak*. 236/2015eko Dekretua. II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. <https://irale.hezkuntza.net/documents/55483/1253878/Heziberri+2020+Oinarrizko+Hezkuntza++curriculum+osoa.pdf/064da273-0e61-c16a-9197-5bab01bab72a>
- Eusko Jaurlaritzak. (2014). Heziberri-2020: Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_marco/eu_def/adjuntos/Heziberri_marco_modelo_educativo_pedagogico_e.pdf
- Fuentes, A. L. (2006). *El valor pedagógico de la danza*. (Doktorego tesia). Universitat de Valencia, *Espania*.
<https://roderic.uv.es/bitstream/handle/10550/15416/fuentes.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

- Goiena Komunikazio Taldea. (2021eko azaroak 10) *Oier Araolaza: «Dantza taldeak oso garrantzitsuak dira euskal kulturaren sozializatzeko»* [Bideoa]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=q2loATIaovk>
- Goñi, A., Olazabal, J., Salazar, J. M., Belauntzaran, P., Goikoetxea, U., Iraola, E. eta Aresoko Udaleko Euskara Zerbitzua. (2012). Ingurutxo. *Panpanoziri*, (4), 19-21.
- Ibañez, A. (2015 urtarrilak 19). Dantzaz eta politikaz. *dantzan.eus*. <https://dantzan.eus/kidea/aritz/dantzaz-eta-politikaz?s=09>
- Irigoién, I. (1993). La danza folklórica. *Dantzariak*, (50), 21-36.
- Larrea, J. (2015). *Euskal dantza, sinboloz betea dagon gure hizkuntza bat da* [Bideo artxiboa]. <https://www.eke.eus/eu/soka/sokadb/1/1.2.1/1.2.1-22>
- Larrinaga, J. (2007). Folklore y educación: hacia una nueva metodología. In Dueñas, E. X. (Ed.), *Jentilbaratz: cuadernos de folklore 9* (361-374 or.). Eusko Ikaskuntza.
- Trias, N. (1988). LA APORTACIÓN DE EMIL JACQUES-DALCROZE A LAS ACTIVIDADES CON SOPORTE MUSICAL. *Apunts. Educación física y deportes*, I(11-12), 4-6.
- Martín, M. J. (2005). Del movimiento a la danza en la educación musical. *Educatio siglo XXI*, (23), 125-140.
- Maya, J. (2021). DANTZA. In Urkiza, A. (Ed.), *Garen Hori* (57-79. or.). Elkar.
- Maya, J. (2003). Euskal dantza tradizionalak. *Hik Hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, (80), 21-22.
- Merlos, L. (2020). *Danza y escuela: Perspectivas educativas en la provincia de Buenos Aires (1983-2018)*. (Master amaierako lana). Universidad Nacional de La Plata, Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación. Argentina. <https://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/library?a=d&c=tesis&d=Jte1932>
- Monroy, M. (2003). La danza como juego, el juego como danza. Una pregunta por la pedagogía de la danza en la escuela. *Educación y Educadores*, (6), 159-167.
- Muela, F. J., eta Señor, D. (1997). Danzas del mundo. *Eufonía: Didáctica de la música*, (6), 45-52.
- Nafarroako Gobernua. (d.g.). *Escuelas de Familia MODERNA: bloque II, etapas de desarrollo evolutivo, etapa 3 a 6 años*. [https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/51352/BLOQUE+II+ETAPAS+DESARROLLO+EVOLUTIVO+\(3-6+A%c3%91OS\).pdf/cfc0c0a1-4ac1-4737-b257-f50c60aebc68](https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/51352/BLOQUE+II+ETAPAS+DESARROLLO+EVOLUTIVO+(3-6+A%c3%91OS).pdf/cfc0c0a1-4ac1-4737-b257-f50c60aebc68)

- Ochoa de Eribe, M. P. eta Araolaza, O. (2009). Dantza eta hezkuntza: Euskal dantza curriculumean. *Dantzariak*, (55), 57-74.
- Ochoa, V. (2004). *Representaciones sociales del baile y su relación con la promoción de la salud en la ciudad de Medellín*. (Master amaierako lana). Universidad de Antioquia, Facultad de Enfermería. Kolonia. https://bibliotecadigital.udea.edu.co/bitstream/10495/161/6/OchoaVer%c3%b3nica_2004_RelacionBaileSalud.pdf
- Otamendi, G. (2015 otsailak 26). Zein da dantzaren funtzio politikoa? *dantzan.eus*. <https://dantzan.eus/kidea/arrabita/zein-da-dantzaren-funtzio-politiko>
- Padilla, C. eta Zurdo, R. (2009). Desarrollo de la creatividad a través de la danza improvisación y la danza de contacto. Valores y aplicaciones en educación primaria y secundaria. In Ruano K., Sánchez, G. (Ed.), *Expresión corporal y educación*. (217-258 or.). Wanceulen.
- Pedero, C. (2013). Danza en educación primaria. *Educatio Siglo XXI*, 31(1), 129-148.
- Sánchez, K. (2007). Música y danza tradicional vascas en la época posmoderna. In Dueñas, E. X. (Ed.), *Jentilbaratz: cuadernos de folklore 9* (345-353 or.). Eusko Ikaskuntza.
- SOKA (d.g.). *Soka-dantza eta protokolo zibilak hegoaldean: dantza gizartearen ispilu*. <https://www.eke.eus/eu/soka/sokadb/3/3.1/3.1.1>
- Unanua, J. (2021eko urtarrilak 20). Adiós inesperado a Xabier Sarriegi 'Paxatxo'. *El Diario Vasco*. <https://www.diariovasco.com/tolosa-goierri/beasain/adios-inesperado-xabier-20210120002940-ntvo.html>
- Urbeltz, J. A. (2002). *Danza Vasca. Aproximación a los símbolos*. Etor-Ostoa.
- Vicente, G. (2009). *Movimiento y danza en Educación Musical: un análisis de los libros de texto de Educación Primaria*. (Doktorego tesia). Universidad de Murcia. Espainia. <https://digitum.um.es/digitum/handle/10201/10046>
- Zamora, A. (2005). El mundo de la danza. In Zamora, A (Ed.), *Danzas del mundo* (7-10 or.). CCS.